

ROBOT DENDA

Kaixo! Nire izena Robi da. Dendako robotik ospetsuena bihurtu nintzenekoa kontatuko dizuet.

Mekanikariak, aspertuta zegoen arratsalde batean, robot batzuk muntatzen ibili ondoren sobera gelditu zitzaizkion piezak hartu, eta beste robot bat egin zuen: ni neu, hain zuzen.

Pieza guztiak ezberdinak ziren, eta hauxe izan zen emaitza

Begira nolakoa naizen!




Nire piezak ez dira perfektuak, baina denak ondo dabilta eta mila gauza egin ditzaket! Gehien gustatzen zaidana istorioak kontatzea eta dantzatzea da.

Biltegian, mekanikariek musika jarrita izaten dutenez beti, dantzan ematen dut egun osoa.



Dendako erakusleihoa hilerro aldatzen dute, eta robot guztiok nahi izaten dugu erakusleihan egon. Baina ni ez naute inoiz jartzen. Adabakiz eginda nagoela esaten didate, eta inork ez duela horrelako robotik erosi nahi.



Baina hori ez da egia. Nik besteen aukera berberak nahi nituen. Horregatik, ideia bat bururatu zitzaidan.

Lehenik eta behin, dendara eramaten dituzten kaxa batean gorde nintzen. Han, zain egon nintzen, denbora luzez. Dena isil isilik zegoenean, atera egin nintzen.


Erakusleihora joan nintzen. Gainerako robotak harrিতuta geratu ziren han ikusi nindutenean!



Nik esan nien denok berdinak garela eta denok aukera berberak merezi ditugula. Eta segur aski ume askori ni bezalako robotak gustatzen zaizkiela, pixka bat desberdinak direnak.

Txorakeria iruditu zitzaien nik esandakoa, baina, azkenean, lekutxo bat egin zidaten erakusleihoaren bazter batean. Baina pozik nengoen eta banekien egunean zer egin.


Goizeko hamarretan, dendako atea zabaltzen zituzten. Orduan, «bat, bi eta hiru» esan nuen, eta programatuta neukan musika martxan jarri nuen.



Dantzatzen hasi nintzen eta, handik gutxira, jendetza bildu zen erakusleihoaren aurrean, nola mugitzen nintzen ikusteko.

Saltzaileak lanpetuta zebiltzan dendako apalak txukuntzen, eta ez ziren ohartu ere egin. Baina, bat batean, erosle asko sartu ziren denean, robot dantzariak zenbat balio zuen galdezka.

"Robot dantzariak zenbat balio duen? Guk ez daukagu dantza egiten duen robotik", esaten zuten. Orduan, erakusleihoan ikusi zutena kontatu zieten, eta aho zabalik geratu ziren dendariak.




Orduantxe konturatu ziren gaizki jokatu zutela nirekin.

Bazterrean utzi ninduten besteak bezalakoa ez nintzelako, baina jende askok erosi nahi ninduen!

Egun hartatik aurrera, tailerrean sobera gelditutako pieza guztiak robotak egiteko erabili zituzten.

Orain, dendan gehien saltzen dena robot dantzaria da!



Dena den, garrantzitsuena hau da:

orduantxe ikasi genuela denok berdinak garela eta denok aukera berberak izan behar ditugula.

